

ETXEGUNETAKO LAN EZ ORDAINDUAREN KONPARAKETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN ETA IPAR EUSKAL HERRIAN

*Comparison of unpaid work in households in the Autonomous Community
of the Basque Country, the Autonomous Community of Navarre
and the Northern Basque Country*

AINHOA OZAETA MENDIKUTE*

Euskal Herriko Unibertsitatea, España

LABURPENA

Mendekotasun ekonomikorik ezak harreman berdintasuna ahalbidetzen du, baina bizibidea lortzeko enplegua funtsezkoa da. Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean, Estatuaren laguntzek diru sarrerak bermatzen dituzten arren, emakumeentzat lan ordaindua izatea ezinbestekoa da. Ekarpen honek sexuaren arabera desberdintasunak aztertzen ditu Euskal Herriko etxegunetan, mugaren bi aldeetako egoerak alderatuz. Emakumeek eta gizonek dituzten aukera ekonomikoak eta horien eragin soziala modu kualitatiboan aztertu dira. Helburua da ongizate kolektiboa eta estatu erregimenek familiarekiko duten eragina agerian jartzea. Horrekin batera, emakumeen ongizatea ezin dela ongizate erregimenetatik bereizi azpimarratzen da. Hala, galdetzen da: emakumeek hobeto bizi al dira Hego ala Ipar Euskal Herrian? Ondorioz, zaintza lanen aitorza eta haien balio politikoa aldarrikatzen da, eta instituzio eta alderdi politikoan ardura nabarmendu, proposamen zehatzak aurkeztuz.

Gako hitzak: lan ez ordaindua, zaintza, Euskal Herria, ongizatea, berdintasuna.

RESUMEN

La falta de dependencia económica permite la igualdad de relaciones, pero el empleo es fundamental para el acceso a la vida. En la Comunidad Autónoma Vasca y en la Comunidad Foral de Navarra, a pesar de que las ayudas estatales garantizan ingresos, es imprescindible tener un trabajo remunerado para las mujeres. Esta aportación analiza las desigualdades en función del sexo en los hogares vascos, comparando situaciones a ambos lados de la frontera. Se han analizado cualitativamente las posibilidades económicas de mujeres y hombres y su impacto social. El objetivo es visibilizar el bienestar colectivo y la influencia de los regímenes estatales en la familia. Además, se subraya que el bienestar de las mujeres no puede diferenciarse de los regímenes de bienestar. Así, se pregunta: ¿viven mejor las mujeres en Hegoalde o en Iparralde? En consecuencia, se reivindica el reconocimiento y el valor político de trabajo del cuidado y se hace hincapié en la responsabilidad de las instituciones y partidos políticos, presentando propuestas concretas.

Palabras clave: trabajo no remunerado, cuidado, Euskal Herria, bienestar, igualdad.

ABSTRACT

The lack of economic dependence allows for equal relations, but employment is fundamental to access to life. In the Basque Autonomous Community and in the Foral Community of Navarre, although state aid guarantees income, it is essential to have paid work for women. This contribution analyzes gender inequalities in Basque households, comparing situations on both sides of the border. The economic possibilities of women and men and their social impact have been qualitatively analyzed. The objective is to make visible the collective well-being and the influence of state regimes on the family. Furthermore, it is underlined that the welfare of women cannot be differentiated from welfare regimes. So the question is: do women live better in Hegoalde or in Iparralde? Consequently, the recognition and the political value of the work of care is demanded and the responsibility of the institutions and political parties is emphasized, presenting concrete proposals.

Keywords: unpaid work, care, Basque Country, welfare, equality.

* **Correspondencia a:** Ainhoa Ozaeta Mendikute – ainhoa.ozaeta@ehu.eus – <https://orcid.org/0009-0005-0975-8306>

Cómo citar: Ozaeta Mendikute, Ainhoa (2025). «Etxegunetako lan ez ordainduaren konparaketa Euskal Autonomia Erkidegoan, Nafarroako Foru Komunitatean eta Ipar Euskal Herrian»; *Lan Harremanak*, 54, 447-470. (<https://doi.org/10.1387/lan-harremanak.27552>).

Recibido: 15 mayo, 2025; aceptado: 26 septiembre, 2025.

ISSN 1575-7048 — eISSN 2444-5819 / © UPV/EHU Press



Esta obra está bajo una licencia
Creative Commons Atribución 4.0 Internacional

1. Sistema ekonomiko garaikidearen akatsak: emakumeekiko indiferentzia eta lana

Gizarte Zientziatik orokorrean, baita ekonomia ikuskeratik ere, askotan ikertu izan da herritarron ongizatea, gutxitan egin izan dira, ordea, gure herria bere osotasunean aztertu duten gizarte eta ekonomia mailako ikerketak. Lurralde bere osotasunean hartuta herritar ororen ongizatea aztertzen duen ikerketa da honakoa. Generoaren aldagaiari erreparatzen dio, eta emakumeak ikerketaren muina dira, subjektu dinamiko gisa. Hala, Ekonomia eta garapeneko tesia (2020-2023) du abiapuntu, eta artikulu honek, ordaindu gabeko lanaren testuinguruan emakumeek bizi duten egoera du hizpide: Euskal Herriko etxeetan gertatzen den emakumeen lan gainkargaren sustraia aztertuz.

Egun, sistema ekonomiko garaikideak emakumeon bizitzetan sortzen dituen hutsegiteen ondorioekiko interesetik abiatuz, egilearen ibilbide zientifikoa ekonomia feministatik sortutako ainguratze teoriko batean integratzen da, bizitzaren iraunkortasuna, jasangarritasuna, desberdintasunen analisia eta eraldaketa soziala kontuan hartzen dituen. Cristina Carrascok (2020) dio ekonomia klasiakoak ez duela ikusten, edo ikusgaitz egiten duela gizarte loturen materialtasuna, etxeko ekoizpenaren oinarri diren familia eta komunitate taldeen konfigurazioetan. Defendatzen da, gizakion interdependentziak oinarri dituen epistemologia feminista txertatzeak aukera ematen duela aipatu ikusezintasuna neutralizatzeko, eta ordaindu gabeko lanaren analisisan hurkoarekiko zein naturarekiko pertsona interdependententeak garesti barneratzeko. Yayo Herrerok (2013) gorpuzaren iraungitzea, zaurgarritasuna eta beharrak bere gain hartzearen garrantzia aztertzen du, eta ezinbestekoa da interdependentzia horren oinarria ulertzeko, elkarrekikotasuna, lankidetzeta, loturak eta harremanak gizadirik egon ezin daitekeen baldintza gisa kokatzeko.

Ortodoxia ekonomikoak giza bizitzaren alderdi horiek alde batera uzten baitu, garrantzirik ez dutela argudiatuz edo interes intelektual gutxikoak edo, besterik gabe, naturalak direla argudiatuz, Karen Baraden (2023) ildo teorikoari jarraituz, «errealismo agentziala» kontzeptuarekin bat egitea proposatzen da, usu, ekonomia domestikoaren praktikak nola eratzen diren ulertzeko. Horretarako, gure «munduan egoteko moduak» aztertzearen apustua egiten da, munduaren osaketa integralaren forma gisa ulertuta, haiek egituratzen dituzten gizarte harremanak atzemanaz, «kokatutako agentzia batetik jarduten duten barneko osagaien bana-ezintasun ontologikoaren testuinguruan» (Barad, 2023, or. 49).

Bestetik, munduko estatu batzuk, beste batzuen kaltetan, posible egiten dituzten antolamendu partikularren parte bagara, ekonomia zientzia ortodoxoek albo batera uzten dituzten oinarriek, existitzen ez den gai bati buruzko teoria sortzen dute. Yolanda Jubeto eta Mertxe Larrañagak (2014) *homo-economicus*

kontzeptu hau kritikatzeko, ekonomia neoklasikoak ikertzen duen subjektua guztiz arrazionala, berekoa, independentea, buruaskia, osasuntsua, ez gaztegia edo zaharregia dela kritikatu; merkatuan beti aktibo dagoena, eta ongizate pertsonala etekin ekonomikoaren bidez soilik bilatzen duena. Eta bi autore hauek subjektu hau ez dela existitzen ondorioztatzen dute. Prototipo horretatik urrun, bariedade eta intentsitateen arabera, denok gara menpeko, guztiok gara hurkoarekiko zein naturarekiko mendeko, eta bizitza zikloan, oro har, zaintza behar dugu.

Mendeko pertsonak zaintzeak giza inbertsio handia eskatzen du, eta hein handi batean emakumeek egiten dute lan honi, inolako ordainsaririk jaso gabe, eta zaintzak behar duen maitasuna edo afektua emakumeen berariazko bertute naturala balitz bezala. Azpimarratu behar dugu, lan hori genero desberdintasunaren iturri nabaria dela. Gainera, zaintza, oro har, eta menpekotasuna duten pertsonen zaintza, bereziki, mende honetako gai nagusietako bat da, eta ekonomia neoklasikoak jarraitzen duen indibidualismo metodologikoak, eta *homo-economicus* subjektua erdigunean jartzeak, beste ondorio batzuen artean, pertsonen bizi baldintzak jada ez duela kezka soziala suposatzen, eta familiaren eremu pribatuan konpondu beharreko gaia bihurtzen dela ondorioztatzen du (Jubeto eta Larrañaga, 2014).

Emakume klaseak lan merkatuan eta estatu egituraren erlazio espezifikoari so eginez, soziologian egindako hainbat ikerketak frogatu dute motibazio ekonomiko bakarra ez dela norberaren interesen oinarritutako arrazionaltasuna, altruismoan, errukian edo elkartasunean, erantzukizunean, hertsaduran oinarritutako beste arrazionaltasun batzuk ere jokoan sartzen baitira lanaren alderdi ezberdinetan (Cukier, 2016). Feminismo materialistaren ekarpenetako bat, ekofeminismoaren berritasunarekin batera, hain zuzen ere, gizakiak munduarekin eta naturarekin duten harremanean aintzat hartzen dituen eredu ekonomiko baten pentsamenduan datza, dauden arrazionaltasun ekonomikoaren ugaritasuna, eta genero arau sozialen garrantzia kontuan hartuta (Perez Orozco, 2019).

Kokaturiko posizionamendu batetik, eta berreraikitzen dituen interdependentzietatik abiatuta, autorearen emakume kondizioa ikertutako objektuari datzekiolaren premisan inplementatzen diren inkesta estrategien berri ematea proposatzen da, edo behintzat, ikerketa testuinguru bat bustitzen duenean. Artean eginiko lan analistatik abiatuta, gizartearen erreproduzitu eta eraldatu daitekeenezkotzat hartuta (Cukier, 2016), lana soldataz kanpoko egoeran dauden emakumeentzat dimentsio anitzetan nola integratzen den aztertzen da. Soldatarik ko-bratzen ez duten emakumeek familia heterosexualaren ereduaren testuinguruan egiten dute lan, eta etengabe egin ere: familiaren garunak dira, zerbitzariak eta militanteak dira bertan. Ikuspegi ekonomizista deseraikiz, zeinaren zaintza eta familia antolaketa berez emakumeengan geratzen den, sistema ekonomikoak

Euskal Herriko emakumeen bizitzan, egunekoan, dituen gabezietan eta hauen ondorioetan jartzen da arreta.

Verónica Gagoren (2019) azterketetan oinarrituta, hipotesi hau da abiapuntu: sexuaren araberako lan banaketa desberdintasunen ordenaren parte da, eta, hala ere, politika publikoen bidez eta horien barruan naturalizatuz betikotzen da. Emakumeek ordaindu gabeko lan munduan eta familia zaintzan duten egoerari erreparatzen zaionean, Espainiako eta Frantziako egungo ongizate erregimenek Euskal Herriko etxeetan emakumeek duten gainkargan nola eragiten duten ulertu nahi da. Ikerketak familiei laguntzeko politika instituzionalak azpimarratzera garamatza, eta, azken batean, Estatuaren, lan merkatuaren, familieren eta komunitatearen arteko elkarrekintza edo interakzioa ulertzera.

1.1. Espainiako eta Frantziako ongizate erregimenen gainezarpena eta Euskal Herriko etxegunetan emakumeek dugun gainkargari buruzko interferentzia

2015eko abuztuaren 2an, Nazio Batuen Batzar Nagusiak «Eraldatu gure mundua: Garapen Jasangarriko 2030 Agenda» adierazpena onartu zuen. Bertan, garapen iraunkorrerako hamazazpi helburu ezarri ziren; orduz geroztik, helburuen artean daude, besteak beste, genero berdintasuna, lan duina, hazkunde ekonomikoa eta desberdintasunak murriztea. Parte hartzen duten herrialde guztiek 2030erako ezarritako erronka orokorreari erantzun dietela adostu dute.

Orain, 2025an, aurreikuspenek diote urrun gaudela helburu horiek betetzetik. Emakumeek Euskal Herrian, nahiz eta Frantziako estatu erregimenean (Ipar Euskal Herria) zein Espainiako estatu erregimenean (Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroa) sexuaren araberako harreman sozialen ondorioak jasaten jarraitzen duten desberdintasun sozial horien oinarrian. Ongizate erregimen guztien baitan, kapitalaren, lanaren, herritartasunaren eta estatuaren arteko harremanak arautzea funtsezkoa da; hala ere, alde horretatik, Nancy Fraserrek (2008; 2015) ezberdintasunak identifikatzen ditu patriarkatuan oinarrituriko harremanetan —Estatua aztertzeke oinarritzkoa izanik—, politika publikoetan ikuspegi feministatik. Autore horren arabera, Estatuak birbanaketan genero rol tradizioaletatik esku hartzen badu (hau da, gizon hornitzailea, emakume ez-kondua eta ama), nahiz eta baliabide kopuru izugarriak inbertitu gizarte politikan eta banaketa sozioekonomikoaren eragin eraldatzailea handia izan, eragin hori bera txikia izango da sexuen arteko gizarte harremanetan. Aldi berean, posible al da sexuen arteko harreman sozialak aldatzea estatuaren esku-hartzea esanguratsua ala hondarrekoa izanda ere, emakumeen ahaldunderako bidean eraginkorra ez bada? Hots, administrazio eta erakundeetatik eskaintzen diren laguntza eta politikak familia nukleoari eskainitakoak badira?

Artikuluaren sorburua ikerketa logika horretan kokatzen da. Doktorego-tesitik abiatuta, Euskal Herriko etxegunetako emakumeen egoera ikusarazi nahi

da, Euskal Herrian ordaindu gabeko lanaren eta familiaren zaintzaren arteko *continuumaren* analisiaren bidez. Euskal Autonomia Erkidegoak, Nafarroako Foru Komunitateak eta Ipar Euskal Herriak egungo ongizate erregimenetan duten ikuspegi konparatiboak aukera ematen du, alde batetik, lurralde bakoitzeko genero harreman sozialen desberdintasunari heltzeko, eta, bestetik, ongizate estatuen berezitasunei eta horiek emakumeen eta gizonen arteko harremanei dagozkien berdintasun politiken garapenean dituzten ondorioak aztertzeko. Finen, artikulua honek Hego eta Ipar Euskal Herriko emakumeon bizi baldintzak aztertzen ditu, bizi baldintza ekonomikoak, lan erreproduktiboaren ikuspegitik eta ongizate kolektiboaren logikan kokatuta.

2. Lan erreproduktiboa eta ekonomia feminista egiturazko ikusezintasunaren aurrean

Pentsamendu ekonomikoaren historian zehar, lan produktiboaren (ordaindua eta maskulinoa) eta lan erreproduktiboaren (ordaindu gabea eta femeniinoa) arteko dikotomia hierarkikoa egon da. Kulturaren eta egituraren zatiketa hori kritikatu du ekonomia feministak, salatzen baitu nola ugalketa lana historikoki ikusezina izan den analisi ekonomikoan, bizitzaren jasangarritasunerako eta gizarte ongizaterako funtsezko papera izan arren (Picchio, 2001; Pérez Orozco, 2019).

Erreproduktzioaren berrikuspen kritikoa eginez, azterketa feministak erreproduktzioaren nozioa berreskuratzen du Ricardo eta Marx bezalako autore klasikoetan, baina erreproduktzio sozialaren terminoetan birformulatuz, hau da, gizartearen jarraipena ahalbidetzen duen prozesu integral gisa, eta ez soilik kapitalarena (Carrasco, 2020; Jubeto eta Larrañaga, 2014; Agenjo, 2019). Ikusmolde horrek pertsona guztien bizi baldintzak lehenesten ditu genero bereizketarik gabe, zaintza lana gizateriari eusteko ezinbestekotzat onartuz (Szalma *et al.*, 2020).

2.1. Paradigma neoklasikoari kritikak eta alternatiba heterodoxoak

Salbuespen erlatibo bat Gary S. Becker-ek (1981) aurkezten du bere «Nueva economía de la familia»-rekin, non etxeko lanaren analisia sartzen duen. Hala ere, bere esparruak teoria neoklasikoaren maximizazio, arrazionalismo eta indibidualismoaren printzipioetan ainguratuta jarraitzen du, eta ez ditu genero desberdintasunak zalantzan jartzen. Aitzitik, lanaren banaketa sexuala hautu arrazional gisa justifikatzean legitimatzen ditu (Carrasco *et al.*, 2011). Ikuspegi horrek ekonomia giza eta gizarte ongizateko helburu errealetatik urruntzen du, eta hazkunde ekonomikoa lehenesten du, baita desberdintasuna eta pobretzea dakartzanean ere (Carrasco, 2014; Muyor-Rodríguez, 2019; Ezquerria, 2012).

Gainera, indibidualismo metodologiko neoklasikoak eta «homo economicus»-aren figurak bizi baldintzak esfera pribatura zokoratzen dituzte, egiturazko arazoak despolitizatuz (Sagastizabal, 2017).

Neokeynesiarrak, marxistak edo instituzionalistak bezalako korrante kritiko batzuek pobrezia edo desberdintasuna bezalako gaiak jorratu dituzten arren, marko analitiko merkantilista hautsi gabe egin dute. Erreproduktzio kontzeptutik berreskuratu du, bereziki eskola sraffianoan edo autore marxistetan, eta gehiago zentratu da kapitalaren erreproduktzioan, analisiaren ardatz gisa erreproduktzio sozialean baino (Federici, 2013). Gizarte sistema batek iraun ahal izateko, hori posible egiten duten baldintza materialak sartu behar dira eztabaidan, eta ohartarazi behar da hura ez egoteak arriskuan jartzen duela sistemaren bera iraunkortasuna (Fraser, 2016; Pérez Orozco, 2019). Zentzu horretan, erreproduktzio sozialak iraun nahi duen edozein ekonomiaren oinarritzko premisa bihurtu behar du (Carrasco, 2014). Horren ondorioz, produktzio eta banaketa sistema berriz diseinatu behar da, eta giza beharrei eman behar zaie lehentasuna, kapitalaren metaketaren gainetik.

Ekonomia feministatik salatzen da, halaber, kapitalismoak bizitza sozialaren erdigune etiko eta politikoan kokatu duela metaketaren logika, aldarrikapen politikoak eta bizi garaiak ulertzeko moduak ere kolonizatuz (Ezquerria, 2012; Pérez Orozco, 2019). Pérez Orozcok (2019) dion bezala, kapitalismoak «Gauza Eskandalagarri bat» eraiki du, logika antropozentriko, androzentriko, heterosexista eta neokoloniala inposatzen diona bizitza osoari.

Esparru horretan, merkatuak existentziaren erdigune sinbolikoa hartzen du, bizitzaren eta gizarte antolaketaren beste logika batzuk desplazatuz (Muyor-Rodríguez, 2019). Horren ondorioa da eskaera sozialak ere enplegu eta soldata terminoetan formulatzen direla, eraldatu nahi den sistema bera indartuz. Denboraren eta espazioaren antolaketak kapitalaren beharrei erantzuten die, eta ez pertsonen beharrei, eta hori lanaldietan, merkataritza ordutegietan edo garraiora eta mugikortasun produktibora bideratutako hirigintzan islatzen da (Carrasco, 2009; Sassen, 2003; Fernández Durán, 2009). Hala, metaketaren logikak zehazten du zer, nola, zenbat eta norentzat ekoizten den, merkatuaren logikan sartzen ez den oro ikusezin bihurtuz. Hiri espazioak, adibidez, kapitalerako funtzionalitatearen arabera konfiguratu dira, eta ez herritarren ongizateari dagokionez, desoreka ekologiko eta sozialak sortuz.

Azken batean, logika ekonomiko nagusiari kritika sakona egiten dio testuak, bizitzaren alderdi guztiak balorizazio kapitalista prozesurako inputetara murrizten baititu. Horren aurrean, ekonomia feministak bizitzaren iraunkortasuna erdigunean jartzea proposatzen du, lan erreproduktiboaren balioa aitortuz eta sistema ekonomikoaren oinarriak berak berregituratuz. Horrek lana birdefinitzea ez ezik, ekonomia osoaren denborak, espazioak eta helburuak birpentsatzea ere eskatzen du. Herrero (2014) bezalako autoreek ohartarazten duten bezala, bere

baldintza materialak erreproduzitzeko gai ez den ekonomia bat kolapsora kondenatuta dago. Hori dela eta, premiazkoa da hazkunde mugagabea oinarritu beharrean giza bizitzaren eta ez gizakiarenaren erreprodukzio ekitatibo eta jasangarrian oinarrituko diren eruedetarantz aurrera egitea.

2.2. Makroekonomiaren Zirkuituaren Perspektiba Feminista eta Gizarte Erreprodukzioaren Garrantzia

Ekonomia tradizionalak (edo ortodoxoak) fluxu zirkular sinplea aurkezten du gizartearen funtzionamendua ulertzeko: enpresek eta familiek elkarri ondasunak eta dirua trukatzan dizkiote, eta enpresek ekonomia abiarazten dute, hazkundera helburu nagusitzat hartuta. Hala ere, ikuspegi honek errealitatearen zati handi bat ezkututzen du, batez ere emakumeen eta lan ez ordainduaren ingurukoa.

Picchioren (2001) eta teoria feministaren ekarpena makroekonomiaren ikuspegi hau birplanteatzen du. Picchiok «hedatutako errentaren fluxu zirkularra» izeneko eredua proposatzen du, zeinetan ez baita soilik merkatu esparrua kontuan hartzen, baizik eta baita gizarte erreprodukzioa ere. Hau da, pertsonen bizitza sostengatzeko beharrezkoak diren zaintza, mantentze eta eguneroko lanak azaleratzen dira, gehienetan emakumeek doan egiten dituztenak. Pérez Orozco (2019), Ezquerri (2012) eta Gálvez eta Rodríguez (2011) bezalako autoreek azpimarratzen dute lan horiek ezinbestekoak direla kapitalismoaren funtzionamendurako, eta hauek sistematikoki emakumeen gain uzten direla.

Teoria feministak erakusten du nola sistema kapitalistak gatazka estrukturala ezkututzen duen: kapitalaren eta bizitzaren artekoa. Nancy Fraserrek (2015) ohartarazten duenez, erreprodukzio jardura merkatutik kanpo dagoen zerbait bezala tratatzen da, nahiz eta funtsezkoa izan. Lan hauek ez dira soldatapean egiten, eta hala ere, enplegua, kontsumoa eta merkatuak bera funtziona dezaten beharrezkoak dira. Covid-19aren krisiak erakutsi zuen bezala, egoera larrietan emakumeek gainzama handiagoa jasaten dute, zaintza lanen ardura handiagoa bereganatuz (Gálvez eta Rodríguez, 2011; Goikoetxea *et al.*, 2020).

Ekonomia ortodoxoak «langilea» kontzeptua modu mugatuan definitzen du, soilik soldatapeko lana egiten duen gisa. Picchiok eta Pérez Orozcok, ordea, txanpñoi langilearen ideia proposatzen dute: lan ordaindua eta ez ordaindua uztartzen dituen subjektua. Enplegatua ez da soilik lan egitera doan pertsona; aurretik eta ondoren zaintza lanak behar ditu, bizitzaren fase desberdinetan (haurtzaroa, gaixotasuna, zahartzaroa...). Beraz, ez da posible langilearen existentzia ulertzea erreprodukzio lanak kontuan hartu gabe.

Picchioren «hedatutako errentaren fluxu zirkularrak» bi esfera aurkezten ditu: produkzio esparrua (horizontaletik gora) eta erreprodukzio esparrua (horizontaletik behera). Azken honek «giza garapenerako espazioa» (Picchio, 2001)

edo «bizitzaren iraunkortasunerako espazioa» (Pérez Orozco, 2019) izendapena jasotzen du. Bertan, lan ez ordainduak hiru egiteko nagusi ditu: i) ongizatea hedatzea (aberastasuna sortzen baitu), ii) ongizatea zabaltzea (harreman sozial eta emozionalak sustatuz), eta iii) langileria ulertzeko modua birdefinitzea.

Funtsean, sistema ekonomikoaren analisia eguneroko bizitzaren erreprodukzioarekin osatzen denean, ekonomiaren egitura bera aldatzen da. Etxeguneek eta zaintza lanek, merkatuaren menpe ez dauden arren, sistema kapitalistaren oinarri dira. Merkatuan erositako ondasun eta zerbitzu gehienek etxegunean egokitu eta moldatu behar dira bizitzaren beharrak asetzeko, eta hori lan gisa kontuan hartu behar da (Carrasco, 2020).

Laburbilduz, ikuspegi feminista eta Picchioren proposamena ekonomia birpentsatzeko tresna dira, non bizitzaren iraunkortasuna eta lan ez ordainduaren balioa erdigunean jartzen diren. Horrela, aberastasuna eta ongizatea ez dira soilik merkatuan sortzen, baizik eta baita etxeetan eta komunitateetan ere. Hori onartzeak ekonomiaren diseinua, politika publikoak eta gizartearen antolaketa bera berritzeko aukera ematen du.

2.3. Lan ez ordainduaren neurketa

Mendebaldeko gizarteetan, lan ez ordainduek (etxeko guneetan egiten den erreprodukzio lanari loturik) betetzen duten egitekoa aztertzen hasita, eta, bestiere, bizitzaestandar zabalduaren testuinguruan jarraituz, merkatutik datorrena eskuratuz, eraldatuz eta mantenduz, eta baliabide gehigarriak sortuz, ondasunak handitzen dituela ulertzen dugu (Fraser, 2015; Perivier eta Sénac, 2018). Ildo honetan, Fraserrek (2015) dio:

... etxeko lanaren sexuaren arabera banaketak emakumeei esleitzen die etxeko konsumorako ondasunak eta zerbitzuak erosteko eta prestatzeko lana, eta, berez, lana da, baina ez da ordaintzen, eta, oro har, aitortzen ez duena. (Fraser, 2015:56)

Argudioa ontzat hartzen badugu, kuantitatiboki nola neurtu daiteke etxegunean burutzen den lan ez ordaindua? Era ugari daude neurtzeko (Durán Heras, 2006): lan ez ordainduak neurtuz, bai lana doan egiten ematen den denboraren arabera, bai eta diruaren arabera (zein den haren diru baliokidea). Denborari buruzko datuak erabiliz eginez gero, Durán Herasek dio (2006), eguneroko bizitza zenbakietara murriztu nahiak zailtasun metodologikoak eta eztabaida politiko kontzeptualak dakartzala, adibidez, «lanaren» definizioa, etxeguneetan egiten den produkzioa BPGaren kalkuluetan kontuan ez hartzea, edota natura baliabideak suntsitzea BPGan aintzat ez hartzea.

Ikuskera feministatik egin diren hainbat azterketa kualitatibo zein kuantitatibo analizatuta hiru emaitza hartu ditugu kontuan gure marko teorikoa osatzeko: lan ez ordainduan denbora gehiago ematen da lan ordainduan baino

(Pailhé *et al.*, 2022); lankarga orokorra (ordaindutako lanaren eta doako lanaren batura) handiagoa da emakumeentzat gizonentzat baino (Calderaro, 2022); eta emakumeen lan denbora gehiena lan ez ordainduko jardueretan ematen den bitartean, gizonen lan denbora gehiena merkatu jardueretan ematen da (Durán Heras, 2006).

Aipatu ondorio hauek denboraren poderioz bilakaera izan badute ere, errepikatu egiten dira Europako herrialde gehienetan. Gizartearen garapenak, beraz, ez du lan ez ordainduan usu gertatzen den genero desberdintasuna desagerrarazten. Gehienez ere, orekatu egiten da osagaiak, intentsitatea eta baldintzak aldatzen direnean. Baina desagertu gabe. Beraz, lan ez ordaindua aldaezina, anakronikoa edota desagertze bidean doan joera dela argudiatzeak ez du justifikatzen analisietatik kanpo uztea. Hori horrela, esango dugu, lan ez ordainduaren garrantzi kuantitatiboaz harago, bere zeregin kualitatiboan dagoela gakoa (Briard, 2020). Ongizatearen zabaltzean edo hedapenean, hain zuzen ere (Orloff eta Laperrière, 2020).

Gehitutako baliabideek norbanakoen beharrei erantzunez bizitza kalitatea sortzen dute, pertsonen bizitza afektiboren eta erlaziozkoaren espektatibak betetzea bermatuz. Eta honi kontrajartzen zaio bere ongizatearen alde bakar bati erantzuteko ekoizten delako ideia. Finean, ez baitzaio subjektu kontsumitzaileari bere orokortasunean erreparatzen. Esan daiteke, beraz, merkatuan, kontsumitzaile abstraktu batentzat ekoizten dela. Eta merkatu produkzioa soilik kontuan hartzen duen gunean, berriz, bizitza jakin batzuei jartzen zaie arreta. Errentagarri bihurtzen direnei, alegia. Esparru ekonomiko horren azken funtzioa merkatuen esferaren eta gainerako dimentsio sozioekonomikoen arteko interfaze gisa jardutea da: enplegatu horiek nortzuk izango diren definitzea, eta merkatuan modu horretan aitortuak izan daitezen bermatzea, euren beharrak asebeteta eta soldata ongizate bihurtzeko prozesu eraldatzailean inongo erantzukizunik gabe. Picchiok (2001) funtzio horri «erredukzioa» deitzen dio, izan ere, bere hitzetan, biztanleria osoa murrizten da merkatura doazenak hautatzean. Funtsean, biztanleriaren parte bat alboratua izaten da.

Bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegiak, ordea, subjektu guztientzat proposatzen du, berdintasunean eta justizian oinarritzen den bizi-baldintzen erreprodukzioa (zaintza gisa ulertuta) batetik, eta zaintzen despatriarkalizazioa, desmerkantilizazioa eta unibertsalizazioa, bestetik. Esan nahi baita, ekonomia feministak bizitzaren sostengurako ikuskeraz baliatuz ekonomiaren azterketetan bizitza guztiak (giza bizitzak) zein dimentsio guztiak hartzen ditu aintzat.

2.4. Erreprodukzioa bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegitik

Zirkuitu integratuaren nozioa eta bertan jorratu dugun sistema integratuaren ikuspegi dikotomikoa azaltzeak kapitala/bizitza gatazka azaltzeko aukera ematen digu. Beraz, merkaturak eta bizitzaren iraunkortasuna aurrez aurre jarri

ditugu (Fraser, 2015; Gago, 2019; Muyor-Rodriguez, 2019; Pérez Orozco, 2019). Izan ere, aztertu baitugu jada, merkatu eremuan, «beharren» balioa handitzeko prozesuak ezartzen direla, eta etxegunea, aldiz, bizitzaren euskarriako eremua bilakatzen dela. «Beharra» terminoa Perivier eta Sénac-ek (2018) erabiltzen dute genero berdintasunaren eta ekonomiaren joritasunaren arteko lotura aztertzen duten lanean. Premisa horretatik, beraz, bi eremu horiek zein neurritan eragiten duten elkar ikertzera jo dugu.

Hasteko, bi esferen arteko interakzioa lan arloari erabat lotua dagoela teori-zatu dugu: zein lan mota egiten diren, eta ezkutuko eremu pribatuak, merkatu eremuan, lan-indarra nola birsortzen duen (Perivier eta Sénac, 2018). Eta halaber, ez dagoela kontsumoaren inguruko ikuspegi osagarririk, hots, nola berreraikitzen duen merkataritza esferak berak beharren ideia, eta nola agertzen diren eremu horretan pertsonak kontsumitzaileak ere balira bezala. Gainera, merkatuaren ikuspegi merkantilistak ongizatearen dimentsioa alde batera uzten duela ere aztertzen da (Herrero, 2014). Kapitala/bizitza gatazkaren gakoak aztertzean, alta, premisa zera izango da: arreta bizitzan ezartzea, adiera zabalenean ulertuta, hots, gizatiarra ez den bizitza ere kontuan hartuta (Pérez Orozco, 2019).

Ilido horretan, Agenjok (2019) dio, Ekonomiaren jardueretan atzematen diren androzentrismoa, antropozentrismoa eta eurozentrismoa gainditzeko urratsa egin behar duela feminismoaren ekonomia eta politika ikuskerak. Ekonomia konbentzionalak soilik espazio eta subjektu «jakinarentzat» jardun duela argudiatzen du: Mendebaldeko herrialde industrializatuentzat eta gizon heldu, zuri, burges eta heterosexualarentzat. Lerratutako ikuskera partzial horretan, espazio eta ezaugarri horiek ez dituzten herrialde eta pertsonak Ekonomiaren lehentasunetatik kanpo geratu dira, ikusezin bihurtu dira. Ekonomiaren ikuskera erredukzionista eta hierarkizatua sortu da, Ekonomia zer den eta zerri erantzun behar dion zehaztuz. Gainera, gaur egun, barneratu egin dugu, gizarte adostasuna lortu arte egin ere, «benetan garrantzitsua denaren» inguruko iritzia (Agenjo 2019).

Hartara, bizitzak, adierarik zabalenean, iraun egiten du, eta halaxe egin behar duela ulertu behar da. Alegia, gizakia hainbat bizitza dauden ekosistema oso baten parte da, eta ekonomia, bertan, azpisistema bat besterik ez da. Horrenbestez, ekonomiak bizitza duen ekosistemaren parte izanik jardun behar du (Herrero, 2014). Gainera, hedatutako errentaren fluxu zirkularraren diagraman, Estatuak, merkatuak eta etxeguneak elkarrekin jarduten dutela dakusagu. Bitartekotza funtzioa betetzen du, salgaiak ekoiztean eta erreprodukzio sozialerako prozesua bateratzean sor daitezkeen tentsioak baretuz (Picchio, 2001). Azkenik, bizitzaren iraunkortasuna idealizatzeko arrisku inplizituari ere egin beharko genioke so. Esan dugun bezala, badirudi eremu horretan bizitza guztiak berdin balioesten direla, eta inork ez dituela haien asmoak ukatzen, betiere, bideragarri egiteko bitartekoak badaude. Gaur egungo testuinguruan or-

dea, familiak —zentzu hedatuan— koltxoi gisa jokatzeko du, betiere, familia nukleoak kide gisa har zaitzan jokabide arau batzuk betetz gero. Izan ere, merkataritza ekoizpena eta merkataritza banaketaren eremuan, dirua edukitzeak beharrak aitortzen baditu, erreprodukzioaren eremuan beste mekanismo batzuk aitortzen dira, hau da, sexu eta genero normatibitateei buruzkoak alegia, eta horiek guztiek ez diete balio bera aitortzen bizitzaren guztiei (Ciccia eta Sainsbury, 2018; Perivier eta Sénac, 2018; Perivier, 2020).

2.4.1. *Bizitzaren iraunkortasuna kolektiboaren testuinguruan*

Bizitzaren iraunkortasunerako zein ondasunen gaineko erantzukizunerako auziak hamaika buruhauste sortzen ditu gaur-gaurkoz. Ekonomia eta politika ikuskera feminista, Espainiar estatuan batez ere, azken hamarkadan garatzen ari da bizitzaren iraunkortasunaren inguruko hausnarketa. Hainbat arlo blaituz egin ere: mugimendu feministan (2018ko martxoaren 8ko Greba Manifestua), ekonomia sozial eta solidarioko erakundeetan (REAS, 2014), hirugarren sektorearen edo zenbait alderdi politikoren diskurtsoetan eta ekintzetan finkatu dela ikusten da (Agenjo, 2019). Uste da bat egin duela, halaber, krisiaren ondorioak modu integral eta gizatiarrean azaltzeko ikuspegi beharrezkin, eta sistema ekonomikoa antolatzeko beste modu bat planteatu dute (Agenjo, 2019).

Ekonomia feministatik, ekonomikoa denaren eta ez denaren dikotomia apurtu nahi da, biak uztartu behar direla irizten baita. Eta horretarako, zaintza bizitzaren erdigunean jarri behar da (2023ko azaroaren 30eko Greba Feminista Euskal Herrian). Era berean, gizarte justuago, berdino eta bizigarriago bat eraikitzeko nahia dutenen elkarlana ekarriko baitu (Carrasco, 2017). Aldi berean, beste ikuspegi batzuekin zubi eginez ikuspegi ezberdinak aintzat hartzeko aukera ematen du (Carrasco, 2017).

Pérez Orozco dioenez (2014), bizitzaren iraunkortasuna kontzeptuak zeharkakotasuna du oinarri, eta ez produkzio eta erreprodukzio esferen bereizketa (biak loturik baitaude). Ekonomiak «bizitzaren erreprodukzio hedatuaren» prozesua ulertu behar du (Coraggio, 2003, 2009; Jubeto eta Larrañaga, 2014), eta prozesu hori «bizitza molde guztiak baldintzarik onenetan, justiziaz eta berdintasunez erreproduzitzeko eta iraunarazteko moduan antolatu behar dira: ekoizpena, erreprodukzioa eta trukeak» (Jubeto eta Larrañaga, 2014:19). Prozesu horrek pertsona guztien beharrak asebate behar ditu, zilegi da. Nozioak, era berean, «lanaren» kontzeptua hedatzea dakar. Gizadiaren eta naturaren arteko oreka ziurtatzeko. Ekonomia jarduerak kontuan hartu behar ditu (Herrero, 2014), ongizatearen terminoetan eman daitezen, banaketa politikak sarrera aberastasunaren batez-bestekoetan gerta ez daitezen, ez eta balio erantsiaren terminoetan, eta norbanakoaren eskubideak zein gizadiaren, kolektiboaren eskubideak kontuan har daitezen.

Halaber, dimentsio ez-materialei, afektiboei eta harremanei eman nahi zaie garrantzia. Beraz, aukera ematen du azterketa horietan modu erabakigarrian esku hartzen duten faktore soziologiko, politiko eta kulturalak kontuan hartzeko. Azkenik, Carrascoren (2014) iritzian, funtsezko lotura dago dimentsio ekologikoarekin (metabolismo sozialaren eta naturaren arteko oreka berreskuratze) eta ekonomiaren ikuspegi sistemikoarekin:

dimentsio anitzeko nozioa da, eta hainbat iraunkortasun biltzen ditu, funtsean, ekologikoa, ekonomikoa, soziala eta gizatiarra, eta haien arteko erlazio guztiak. Hala, iraunkortasuna termino globaletan baino ezin da ulertu. (Carrasco, 2014:38)

Era berean, Pérez-Orozcoren (2014) eta Carrascoren (2016) azterketetan, apustu egiten da «kapitalzentrismoaren» diskurtso eta espazioak askatzearen alde. Kapitalari edo merkatuei horrenbesteko garrantzia emango ez dien analisi esparru bat sortzen saiatuz; izan ere, horrek adierazpen ekonomikoko guztiak aintzat hartzera bultzatzen du, kapitalak kaltetzen dituenak, kapitalak artikulatzen dituenak, kapitalari aurre egiten diotenak. Finean, ekonomia eta politika feministaren ikuskeratik egitura erakundeen interakzioa Bizitzaren iraunkortasunaren ikuspegitik egin behar da: i) Sistemen arteko harremanen esparru maila (ekologia, ekonomia eta gizarte arlokoa); ii) Jarduera ekonomikoko esparruen arteko harremana, meso mailan (merkatua, Estatu, etxegunea, eta gizarte eta komunitate sareak); iii) Subjektu jakin batzuen arteko botere harremanak mikro mailan. Subjektu horiek baitira bizitzaren iraunkortasunerako prozesuen ardura duten subjektuak ahaldunduak. Erabaki indibidualak eta taldeko erabakiak har ditzaten.

Baina nola antolatzen da gizarte, politika eta ekonomia egituretatik eta globaltasun horretan, bizitzaren iraunkortasuna? Existitu al da inoiz bizitzaren iraunkortasuna bermatzeko erantzukizun kolektiboa izan duen egitura eta erakunderik? Kapitalismoaren baitan gauzatzen diren ezarpen joerek erantzukizun kolektibo horren kontra egiten dutela dio metaketaren eta atzeraldi bidezko metaketaren nozioen tesiak (Fraser, 2015; Gago, 2019; Muyor-Rodriguez, 2019; Pérez Orozco, 2019). Amankomunak, guztion mesederakoak edota kolektiboak diren egiteko eta jardueren alde egiten du feminismoak, *commoning practices* deiturikoen alde (Federici, 2013). Aitzitik, baliabideen kudeaketa kolektibo bat ez da zertan, beti, erantzukizun kolektiboaren sinonimo, ez behintzat baliabideak modu justuan eta demokratikoan banatuko direnaren sinonimo (Federici, 2013).

Amaitzeko, Amaia Pérez Orozcoren (2019) ekarpenaren arabera, gaur egun ez dago, bizitzaren iraunkortasunaren ardura modu eraginkorrean hartzeko sendotasun nahikoa duen egitura kolektiborik. Hots, jaio garenetik hiltzen garena izango dugun bizitza duintasunez biziko dugula bermatzeko. Horretarako beharrezkoak diren zaintza-lanak, baliabideen banaketa justua edo ekosistema jasangarrien mantentzea bezalako auziak ez daude gaur egungo erakunde na-

gusien agenden erdigunean. Arrazoa izan daiteke, estatu mailako erakunde publiko gehienek ez dutela bizitzaren jasangarritasuna helburu duen logika batetik jarduten, balorizazio prozesuaren zerbitzura jarduten dutela baizik. Kapitalismoak balioa (eta etekinak) sortzeko duen logika gailentzen da: erabaki politiko eta ekonomiko gehienak merkatuaren eta kapitalaren interesetara bideratuta daude, ez bizitzaren iraunkortasunerako egiturak sortzera. Ondorioz, Pérez Orozcoren ustez, premiazkoa da bizitzaren iraunkortasuna ardatz duen begirada kolektibo bat eraikitzea, eta horretarako beharrezkoa da egungo instituzio publikoen funtzioak eta lehentasunak berriz pentsatzea, zaintza eta bizi-baldintza duinak lehenetsiz. Bizitzeko aukera emateko baldintzak jartzeko erantzukizuna, ordea, egunerokotasun eta intimitateko egituren inguruan antolatutako merkaturetatik at daogen eremuan kokatzen da.

3. Emaitzak eta eztabaida

3.1. Mendekotasun ekonomikoa eta lanaren izaera

Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean, bizibidea bermatzeko ezinbestekoa da emakumeek lan ordaindua izatea, Ipar Euskal Herrian baino gehiago. Horrek, ordea, ez du bermatzen autonomia ekonomikoa, enpleguaren kalitate eskasagatik eta lanaldiaren eta soldataren egituragatik. Enplegu prekarioa eta lan erreproduktiboaren karga metatua dira ohiko egoerak.

Ordaindutako lan munduan diskriminazioa eragiten duten arrazoiak aztertzen hasiz gero, emakumeek jarduera ekonomiko ordainduan duten parte hartzean jarriko genuke arreta. Adibidez, lanean hasten diren emakumeen proportzioa gizonena baino txikiagoa da, nahiz eta, denboraren joanarekin, proportzio hori murriztu egin den. Hain zuzen, emakumeen jarduera tasak gora egin duela onartu arren, arrakalak iraun egiten du eta modu geruzatuan egiten du, gainera. Hezkuntza maila altuena duten edo maila sozioekonomiko handiagoko emakumeen jarduera tasa hezkuntza eta baliabide ekonomiko gutxien dituzten emakumeena baino dezente gehiago hazi da. Gainera, lehen taldearen lan merkatuko parte hartzea bigarrenarena baino askoz egonkorragoa da. Nolanahi ere, emakumeek lan merkatuan gero eta parte hartze handiagoa izateak, ez du diskriminaziorik gabeko egoera ekarri. Zergatik ordea? Picchio-ren (2001) iritziz, lan indar feminizatua litzateke —edo gehiegizko erabilera bederen— emakumeen lan merkatuko parte hartzearen igoera arrazoituko lukeen faktorea¹. Baina hori ho-

¹ Ekonomia feministatik lan indar feminizatua kontzeptuari zabaltasuna ematea lortu da. Ikerketa askok etxe gunean emakumei egotzen zaizkien egitekoak identifikatzeko erabiltzen bada ere, Picchiok kontzeptua lan merkatura zabalduz, enplegu batzuk, de facto, emakumeentzat gordetzen direla salatzen du. Kontzeptu zabal honen adibideak dira: ordaindutako edota ordaindu gabeko, hezkuntza eta heziketari lotutako lanak, haur eta helduak zaintzeko lanak eta abar.

rrela izanik ere, nola justifikatu, okupaziorik gabeko eta azpi-okupazioaren bera-riazko tasak handiagoak direla emakumeentzat gizonentzat baino?

Bistan da, lan merkatuetan bereizketa bertikaleko nahiz horizontaleko dinamika irauten dutela². Azken hori emakumeek lan jakin batzuetan duten gehiegizko ordezkartzan islatzen da, gehienetan emakumeen enplegu gisa identifikatzen baitira. Okupazio femeninotzat hartzen dira zerbitzu sektoreko enpleguak, eta halaxe agertuko zaigu hirugarren sektorean, non, emakumeek parte-hartze handia izan ohi duten. Batez ere, erreprodukzioa bideratutako (hezkuntza, osasuna, zerbitzu pertsonalak eta etxeko lana) jardueretan (Picchio, 2001). Era berean, emakumeek lan arloan aurrera egiteko duten zailtasun handienei ere erreparatzen zaie. Honi dagokionean esan, kristalezko sabaia edo *glass ceiling*³ izeneko fenomenoaren bidez aztertzen dela arrazoi hau. Egoera horren adierazlerik nabarmenena emakumeek jarrera exekutiboetan duten ordezkartza txikia da, eta hori, orobat, hezkuntzan eta trebakuntzan egiten den inbertsio eskasaren arrazoiari egotzi dakioke. Egitura hierarkikoaren goiko muturrean esperientzia nola edo hala deskribatzen duen egoera horri dagokionez, emakumeek beheko muturrean duten egoera arrazoituz, zenbait autorek pisu itsaskorra edo *sticky floor*⁴ terminoari buruz hitz egiten dute (Rodriguez, 2010).

Bestetik, eskuarki, lanaldi partzialeko lanak dira emakume askok halabeharrez egiten dituztenak. Batzuk enplegu formalean beste askok informalean. Enplegu formalean lan partzialean aritzea lan aukera bat da emakume askorentzat, eta onartu behar izaten dute, desiratuko luketena aurkitzeko zailtasunak baitituzte. Beste batzuek, berriz, lanaldi osoan lanpostuetan aritzeak etxeko bete-beharretan aritzea oztokatzen dietelako onartzen dute. Aipatu ditugun lanaldi ereduak lan batzuk prekarioak izaten dira, eta egoera zailtan garatzen dira.

Kontuan hartu behar da gainera, lanaldi partziala enplegu formalaren baitan gertatzen bada, Gizarte Segurantzaren babesa eta kotizazioa lanorduari proportzionala izango dela. Hots, istripu babesa edo pentsio eskubideak izan arren, txikiagoak izango dira lanaldi osoan arituta baino. Hala ere, gaur egungo lege eta jurisprudentzia testuinguruak joera du proportzionaltasun irizpide hori alde batera uzteko, lanaldi partzialeko langileen babes soziala hobetzeko helburuarekin. Horren erakusgarri dira 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 247. Artikuluan jasotako aldaketak, Europar Batasuneko Auzitegiaren 2023ko urriaren

² Segregazio horizontalaz eta bertikalaz hitz egiten du LANEk, non segregazio horizontalak, emakumeei egozten zaizkien lanpostuetan soldatak kaskarragoak direla adierazi nahi duen, eta bertikalak berriz kristalezko sabaia ezagunari egiten dio erreferentzia.

³ Emakumei lan eskailera hierarkikoetan igotzea galarazten dieten hesi ikusezinak izendatzeko erabiltzen den terminoa.

⁴ Ordainsari gutxiko eta mugitzeko aukera txikiagoko lanetan, eta zailtasun handienak zainketa zerbitzu ezarekin eta lanean trebatzeko aukerarik ezarekin lotzen dira.

19ko epaia (660/20 auzia), eta Espainiako Auzitegi Gorenaren 2024ko urtarri-laren 18ko epaia (223/2021 erre. Zk.). Aipatutako erreferentziek egungo joera juridikoa berresten dute: lanaldi partziala ez da zertan eskubide urritasunarekin lotu behar, eta, aitzitik, lan-eskubideen parekotasuna sustatu behar da lanaldi modalitate guztietan.

Ikerketa garatzeko buruturiko elkarrizketetan adierazi moduan, elkarrizketatutako emakumeen gehiengoak enplegu informal gisa ezagutzen ditugun lanetara jo behar izan dute. Esan behar da, lan informaleko lan hauek, ezaugarriengatik, zirkuitu bat sortzen dutela; emakumeak informazio, trebakuntza eta enplegu bide formala osatzen duen zirkuitutik aldentzen ditu, eta lanbide eta lan karrera osatzearen desabantailak islatzen ditu.

Lan segregazioa emakumeek lan merkatuan duten desberdintasunaren adierazle argia da, eta bereziki nabaria da lan urritasun egoeretan eta prekarietatearen forma anitzetan emakumeek duten gehiegizko parte-hartzean. Prekarietatea hainbat modutan agertzen da, eta horren adierazleak argi ikusten dira lan munduan sartzeko aukeretan, okupazioen kalifikazio mailan eta enplegatuek duten hezkuntza mailan. Emakumeek lan merkatuan betetzen dituzten jarduera askok ez dute ordainsaririk, eta beste askok aldi baterakotasunean eta babes sozialik gabe gauzatzen dira; ez dute, adibidez, ezintasun egoeretan Gizarte Segurantzaren estaldurarik eta arau juridikorik gabeko eremu informaletan kokatzen dira. Askotan, jarduera horiek produktibitate eta diru-sarrera maila baxukoak dira, eta lan baldintza eskasetan egiten dira.

Testuinguru horretan, emakumeen lan merkaturatze historikoaren adibide paradigmatico bat etxeko zerbitzua da. Sektore honek prekarietatearen ezaugarri nagusi batzuk biltzen ditu: Gizarte Segurantzaren estaldura oso mugatua du; lan baldintzen negoziazio kolektiborako esparruen ezintasuna; langile egoiliarren kasuan, lantokia eta bizitokia bereizi ezina, eta horrek mendekotasuna eta morrontza egoeretara hurbiltzen ditu; lan kontratuen aldi baterakotasuna eta egonkortasunik eza; eta ordainsari baxuak, sarritan dirutan ordaindu beharrean espe-zietan gauzatzen direnak (Arriagada, 1997).

Egoera horrek, zoritxarrez, gaur egun ere badu jarraipenik. Nahiz eta emakumeen parte-hartzea lan merkatuan handitu den azken hamarkadetan, prekarietatearen eta segregazioaren joerak oraindik ere bizirik dirau. Estatistika ofizialek erakusten dutenez, emakumeak dira lanaldi partzialeko kontratu gehien hartzailerak, askotan kontziliazio beharrengatik inposatutako aukerak izanik. Era berean, zaintza lanen ardura nagusia oraindik emakumeen gain dago, eta horrek murrizten du euren garapen profesionalerako aukera berdintasuna. Bestalde, pandemia garaian argi geratu zen emakumeek lan prekarioetan duten presentzia: lehen lerroan egon ziren zaintzan, garbiketan, supermerkatuetan eta beste-lako funtsezko baina gutxi baloratutako lanetan, eta horrek areagotu egin zuen generoaren araberako lan-banaketaren eta prekarietatearen arteko lotura. Horre-

gatik, beharrezkoa da ikuspegi intersektional batetik abiatutako politika publikoak garatzea, emakumeen lan-eskubideak benetan bermatzeko eta prekarietatea generoen arteko desberdintasunaren erreprodukzio-egituratik erauzteko. Emakumeen lan-baldintzak hobetzea ez da soilik justizia sozialaren kontua, baita gizarte osoaren kohesio eta garapenaren aldeko apustua ere.

Aitzitik, emakumeei, enpleguan jasaten duten diskriminazioak, ondorioak dakartzkie babes sozialerako politiken hartzaile izateko ere. Izan ere, babes horiek, funtsean, pertsonen lan egoera aintzat hartuta egituratu eta gauzatzen dira, eta egungo sistemak, gaixotasuna, istripua, langabezia edota zahartzarorako babes politikak enplegu formal batean parte hartzen badu edo parte hartu badu, edo langile formal batekin harreman formala badu soilik aurreikusten ditu.

Finean, emakumeek, lan merkatuan bigarren maila batean uzten direlako, osasun babesa —gizarte lanak— edo diru transferentziak —pentsioak, langabezia aseguruak— edukiko ditu, baldin eta enplegu formala lortu badu edo egoera horretan dagoen langile baten mendeko emazte edo alaba izan bada. Laburbilduz, diskriminazioak emakumeei lan merkatuko fase guztietan eragiten die. Honela, emakumeak gizonekiko egoera desabantailatsuetan bizi dira; lanpostu gutxiago lortzen dituzte, ordainsari gutxiago jasotzen dituzte, eta babes sozialaren mende daude (Goikoetxea *et al.*, 2017).

Azkenik, adierazi behar da, emakumeak lan merkatuan gutxiago eta modu prekarioagoan sartzeak esplikatu lukeela, mendeko ekonomia egoera batean aurkitzea, bai eta autonomia edo ahalmen gutxiago izatea ere. Gainera, genero harremanen eta salgaien ekoizpenaren zein pertsonen erreprodukzioaren arteko lotura kontuan hartzea ezinbestekoa da, bai ekonomiaren dinamika ulertzeko, bai eta diferentziak eragiten dituen osagai ekonomikoak

Lurralde arteko ezberdintasunak. Frantziako ongizate sistemak Ipar Euskal Herriko herritarrei oinarri ekonomiko zabalagoak eskaintzen dizkie (adibidez, diru-sarrera bermatuak), eta horrek emakumeen lan karga arintzen du. Espainiako estatuan, sistema murriztagoak direnez, emakumeek beraiek bilatu behar dute diru sarrera gehigarriak, batez ere zaintzaren ardura ez baita publikoaren esparrura pasatzen.

3.2. Emakumeen lanaren ikusezintasunak berekin dakartzan gatazken neurketa eztabaidagai

Zaintza eta etxeko lanek ez dute aitortza sozial eta politikorik, eta erantzukizun pribatu bezala tratatzen dira. Horrela, sistema ekonomikoaren eta gizarte ereduaren funtzionamendua emakumeen lan ikusezinean oinarritzen da. Honek emakumeen autonomia mugatzen du, eta belaunaldiz belaunaldi errepikatzen diren desberdintasunak eragiten ditu.

Tradizionalki, ekonomia zientziak emakumeen jarduerak gutxiago edo zeharka landu izan ditu, eta, horregatik, lanaren kontzeptua ez da gai emakumeen zaintza lanaren ohiko dimentsioen konplexutasunaren berri emateko eta estaltzeko. Konstatazio horrek tresna teoriko berri baten proposamenean sakontzera eramaten gaitu, lanaren etxekotzearena (Martín Palomo, 2008), ustez «neutroak» diren epistemologiekiko distantzia hartuz. Gainera, epistemologia horiek sortutako kontraposizio dikotomiko batzuetan oinarritzen dira: kultura versus natura, gogoia versus gorputza, arrazionala versus emozionala, pentsamendua versus sentimendua, objektibotasuna versus subjektibotasuna edo publikoa versus pribatua; dauden gizarte banaketak indartzen dituzten ezagutzak sortzen dituzte, eta mendeko posizioetan daudenak goratzen dituzte, adibidez, emakumeen biologizazioan eta naturalizazioan (Pérez Orozco, 2019). Horregatik, ikuspegi zientifiko nagusiak zientziaren ikuspegi unibertsalizatzaile batekin lotzen dira, hau da, androzentratua eta partziala, non emakumeak jakintzaren subjektu gisa eta epistemologia feministak erro-tik bazterten diren.

Are gehiago, ekonomia feministak salatu du teoria ortodoxoaren azter-gaia sakonki markatuta dagoela munduari buruz duen ikuskera kapitalistagatik. Horregatik, merkatu antolatuetan eta inbertsonaletan sortzen diren aukera eta truke arazoak ulertu nahi ditu, batez ere ongizate indibidualarekin (erabilgarritasuna) edo errentagarritasun maximoa zehaztearekin zerikusia duten gaiei dagokienez. Zalantzan jartzen dut natura, haurtzarora, zahartzarora, gorputzaren beharrak edo giza harremanak ikusezin bihurtzearen baitan dagoen interes soilik komertzial hori, funtsezko alderdiak kontuan hartu gabe, hala nola klase, sexu, arraza, sexualitate, ezgaitasun harreman sozialei dagokien boterearen erreproduktzioa. Alderdi horiek ekonomiaren erabat kanpokatutako jotzen dituzte ortodoxia zientifikoaren aldekoek. Baina, hausnarketarako, eta lanaren analisi feminista materialisten ildotik, uste da desberdintasun sozial eta politikoen arteko lotura ondo koeraikita dagoela botere harremanen bidez eta botere harremanetan, eta hala iradokitzen du gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun sozialen berehalakotasunak, hortik eratortzen diren politika publikoen programak zabaltzean.

Nola birstortzen dira desberdintasun sozial horiek ekonomiaren funtzionamenduan? Ekonomia feministak bazterreko produktibitatearen baliagarritasuna kritikatzeko, ekonomia bizitzaren erreproduktzioaren prozesua ulertzera bideratu behar dela uste baitu. Ondorioz, soldatapeko/ordaindutako lanera murriztutako lanaren kontzeptua kritikatzeko, hura zabaltzea proposatzen da, bizitza mantentzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak barne hartuz. Aurrerabidea, ongizatea edo garapena bezalako kontzeptu makroekonomikoak ere zalantzan jartzen dira. Politika ekonomikoen, estatistikoen, kontabilitate nazionalaren edo aurrekontu instituzionalen neutraltasunaren ideia zalantzan jartzen da, ekonomian egiten den esku hartze orok genero eragina izango duela ulertuta.

Nola birsortzen dira desberdintasun sozial horiek ekonomiaren funtzionamenduan? Ekonomia feministak bazterreko produktibitatearen baliagarritasuna kritikatzan du, ekonomia bizitzaren erreproduzioaren prozesua ulertzera bideratu behar dela uste baitu. Ondorioz, soldatapeko/ordaindutako lanera murriztutako lanaren kontzeptua kritikatzan, hura zabaltzea proposatzen da, bizitza mantentzeko beharrezkoak diren jarduera guztiak barne hartuz. Aurrerabidea, ongizatea edo garapena bezalako kontzeptu makroekonomikoak ere zalantzan jartzen dira. Politika ekonomikoen, estatistiken, kontabilitate nazionalaren edo aurrekontu instituzionalen neutraltasunaren ideia zalantzan jartzen da, ekonomian giten den esku hartze orok genero eragina izango duela ulertuta.

Klase erlazioa osatzen duenaren ulerkera zabalago batean, historikoki, langileria sistemaren hutsegitez har daitekeen krisi garaian preziorik esanguratsuena ordaintzen duena dela frogatu da (Palmer, 2015). Langile klaseentzat eta herri klaseentzat galerak sozializatzen dira, eskubideak ezabatzen dira, ongizate-estatua zatikatzen eta murrizten da. Egoera horietan, «bizi kapital» harremanetan, kapitalismoa bere logikaren gatibu bihurtzen da, eta eraso suntsitzailerik baten mende jartzen ditu herritarrak eta, bereziki, klase herrikoi eta ertainak. Metaketa erregimenak eta ekonomia abstraktu batek bere ekoizpen moduak soilik, esplotazioa eta zapalkuntza kapitalismoaren oinarri bihurtzen baditu sistemaren oinarrian, orduan erabaki politikoak «kapitalaren alde» hartzen dira, gizartearen gehiengoari bizitza zailduz.

Irtenbideak bilatu behar direnean, begirada hegemonikoak une txar hori noiz pasatuko zain egoten dira. Ezker parlamentarioa bera ere harrapatuta dago Pérez Orozcok «estrabismo produktibista» deitzen duen horretan (2019, 37. or.), ekonomia finantzarioaren aurrean, zeinak ekonomia erreala berreskuratu nahi duen, eta, horrela, «enplegu kontsumo» eskema indartu, hori aukera hobea balitz bezala. «Hogeita hamar Loriautsuen» (1945-75) ongizate estatua itzultzea da kontua, ohartu gabe sistema horrek kolektibo zabalak ere baztertzan zituela, horien artean emakume gehienak, eta mendeakoen zaintza lanaren forma gogorrenak eta etsigarrienak betetzen zituztenak: emakume pobreak, migratzaileak.

Horregatik, ikerketa lan honen bidez, kapitalismoaren eta neoliberalismoaren eta autonomian eta errendimenduan oinarritutako bere nukleo moralaren aurka doan beste gizarte proiektu baten proposamenean kokatzen naiz.

Aipatu bezala, ekonomia feminista kritikoak proposatzen duena da analisien erdigunean bizitzaren iraunkortasuna jartzea (Carrasco, 2001), kapitalismo industrial modernoan bizitza negozioa egiteko, kapitalak metatzeko, dirua irabazteko bide bihurtu baita. Eta eskema horretan, bizitzaren alderdi asko, bizitza osoak ere, baztertu edo baztertu egiten dira, ez direlako errentagarriak. Azken mendeetan, merkatuak gizartearen gune zentralak kolonizatu ditu, eta, horren ondorioz, beste alderdi garrantzitsuago batzuk ikusezin bihurtu dira: gizartea

mantentzeko eta erreproduzitzeko beharrezkoak diren jarduerak. Iceberg osoaren euskarri den zatia ikusezina da. Merkatutik kanpoko lanak ez dira ikusten, eta, beraz, ezin dira baloratu, baina horiek dira sistemari eusten diotenak. Adibide paradigmaticoenetakako bi etxeko lanak dira, eta arreta behartsuenen esku uztea. Gehienbat emakumeek egiten dituzten lan horiei esker mantentzen da bizitza. «Lanaren zibilizazioa [etxeko lanaren trebetasunak, espezializazioa, ebaluazioa, «inproduktibitatea»] osatzen duten praktika horiek ez dira egokiak zaintza lana eta hori egiten dutenak balioesteko» (Molinier, 2020, 154 or.); izan ere, zaintza lan produktibotik kanpo kokatuz, kontzeptu eta praktika horiek, gehienez ere, batzuen apanajea litzatekeen bertute bihurtzen dute, besteentzat korbea den bitartean. Ezin dira, beraz, eremu pribatuari dagokion gai gisa definitu.

Ekonomia politiko feministak (Perez Orozco, 2019) doako lana balioen izenean egindako lan ikusezin gisa arrazoitzen du. Maud Simoneten arabera, etxeko lana eta doako lana ez dira ordaindu gabeko lanak bakarrik; ikusezin gisa ezaugarritzen dira, diru balioaz gain beste balio batzuen izenean egiten direlako. Etxeko lana are gutxiago ikusten da lan gisa, maitasunaren izenean egiten baita (adibidez, ama batek bere seme alabentzat). Hau da, maitasunak lan gisa ez hartzea justifikatzen du, eta, beraz, ez ordaintzea (Simonet, 2010). Emakumeen soldatapeko lana «hertsiki ikusezina ez bada, ikusezina da, dimentsio askotan —juridikoak, ekonomikoak, sozialak eta baita sinbolikoak ere—: batzuetan ukatua, askotan eufemizatua, eta inoiz ez bere balio justuan aitortua» (Krinsky eta Simonet, 2012, 8 or.).

Lanarekiko harremanaren ildo kritiko horretan, zer da bizitzea merezi duen bizitza duina? Nolako bizitza nahi dugu? Bizidunaren zentzu hori jarri behar da eraldaketa sozialaren proiektuaren erdigunean (Jubeto eta Larrañaga, 2014). Helburua ezin da izan ekoizpen tasa errealak handitzea; izan ere, enplegu tasak igo nahi dira, adibidez, ahaztu egiten da hazkunde ekonomikoaren logikak sortzen duen arazo ekologiko larria, eta sistema hori osatzen duten kontraesanak, merkaturako ekoizpenaren eta bizitzaren erreprodukzioaren artekoak, eta, beraz, helburu komunak izan beharko luke zaintzaren etikari eta bizidunaren erreprodukzioari lehentasuna ematea.

3.3. Ekonomia feministaren ikuspegia lanaren zentralitate eta bere hedaduratik

Abiapuntutzat hartuta autosufizientziaren proposamen liberala ez dela egokia soldatapekoa ez den lana kontuan hartzeko —mito bat besterik ez delakoan—, posible izan da elkarrizketen analisisan, ikertuen diskurtsoetatik abiatuta, zaurgarritasun posizioak txertatzea egunerokotasuneko interakzio sozialetan. Horrela, posible izan da ideia hau perspektiban jartzeko: gure gizarte posizioak eta horien barne ekintzak egunerokoan gizabanakoen arteko interdependentzia formen bidez arautzen direla.

Zaurgarriak diren pertsonak —haurrak, adinekoak, gaixoak edo langabezian edo prekarietatean daudenak— aipatzen diren arren, gizon helduak dira mendekotasun handiena duten kolektiboetako bat, nahiz eta mendekotasun hori sarritan ezkutuan egon. Hau da, lanaren mugaketa eta jabetza da gizarte modernoan apustu politiko nagusietako bat, lanak ez baitu soilik funtzio ekonomiko bat —ondasun eta zerbitzuen ekoizpena—, baizik eta, lehenik eta behin, funtzio politiko bat: gizarte harremanak ekoiztea, erreproduzitzea, kontrolatzea eta eraldatzea.

Etxeko eta zaintza lana ikusezin bihurtzeak, edo horiek ezkutatzeak, merkatutik kanpo gertatzen diren tentsioak despolitizatu ditu. Lanaren banaketa sexuala naturalizatuz, eta ekoizpen kapitalistaren esparruan gertatzen dena gatazka sozial bakartzat hartuz, ekonomialari klasikoen lanaren eta ekonomiaren kontzeptualizazioak lanaren eta enpleguaren arteko identifikazio sinbolikoa ezartzen du.

Aipagarria da gaur egun oraindik mantentzen dela etxeko lanaren eta zaintzaren ikusezintasun egoera hori. Egoera hori paradigma ekonomiko androzentriko batean legitimatu zen, kapitalaren ebaluazioa eremu maskulinoetan zentratuz. Baina badakigu ikusten ez dena ez dela politikoki eztabaidatzen; eta, beraz, harreman heteropatriarkalak etxeko eremu pribatura zokoratzen dira, familia gatazka hutsera. Egitura konplexuak ezkutatzen dituen egoera soziologiko eta politiko horrek eragozten du botere harreman ezberdinen arteko elkarrizketa eraldatzaileak ezartzea (Pérez Orozco, 2019).

Artikulu honen hasieran adierazi bezala, Ekonomia Zientzietan lana gehienetan enpleguaren ikuspegitik ulertzen da. Ondorioz, marko horretatik kanpo geratzen den guztia ikusezin bihurtzen da. Ekonomia feminista esparru ekonomikoan emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak ulertzea eta ezabatzea helburu duen konpromiso esplizitu batean oinarritzen da. Funtsezko ideia honetan datza: ezin ditugu desberdintasun sozialak ulertu, ezta gainditu ere, ordaindu gabeko lanak gure analisietan sartzen ez baditugu.

Finean, ekonomia teoriko neoklasikoak Ekonomiaren analisisia ekonomiaren dimentsio monetizatuetera mugatzen du oraindik. Gainera, generoaren marka eta haren ondorioak ez dira kontuan hartzen, eraikuntza ideologikotzat jotzen direlako. Oro har, zientzia ona helburu dela uste da, ikuspegi politikoek kutsatu gabea.

Alde horretatik, ekonomia feministak baieztatzen du ekonomia merkatuaren gainetik dagoela, generoaren markak axola duela, eta ezagutza ekonomikoa ikuspegi politikitik eraiki behar dela. Korrante heterodoxekin alderatuta ere bereizten da: horiek ekonomiaren ikuspegia klase gatazken arabera soilik ulertzen dute, eta genero desberdintasunei bigarren mailako garrantzia ematen diete (Folbre eta Hartmann, 1988).

Sexuen arteko harreman sozialak ekonomikoki esanguratsuak dira, nahiz eta marxista batzuek ez duten onartzen klase harremanak daudela etxeko ekoizpenaren esparruan. Beste batzuek, aldiz, heteropatriarkatua ekonomia antolaketa sistematizat hartzen dute, ez bakarrik ordaindu gabeko lanaren funtzionamendua azaltzen duelako, baizik eta esfera monetizatu eta monetizatu gabeen arteko elkarrekintza arautzen duelako ere (Picchio, 2001; Agenjo eta Pérez Orozco, 2017).

4. Ondorioak eta proposamenak

Ondorio hauek atera ditugu, eta ondorioek printzipio bakarra izan dute xede: emakumeen ahalduntzea eta gizarte mailako garapenak, ikuspegitik, dimentsio hauek hartu behar ditu aintzat: baliabide ekonomikoak, hezkuntza, osasuna, ekitatea eta iraunkortasuna. Eta dimentsio hauek lan merkatuaren esferatik, Estatuaren interbentzioaren esferatik, familiaren esferatik eta komunitatearen esferatik bermatu behar dira. Gainera, esfera hauen interbentzioa, eragin interaktiboa dutenez, modu orekatuan eman behar da.

Hala, mendekotasun ekonomikorik eza funtsezko baldintza da edozein erlaziotan berdin arteko harremana gauzatzeko. Herritarren gehiengoak enpleguaren bidez lortzen ditu bizibiderako behar dituen diru sarrerak. Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean gehiago Ipar Euskal herrian baino, Estatuaren laguntza politikek diru sarrerak bermatzen baitituzte. Lehen bi lurraldeetan ordea, ezinbestekoa da emakumeek lan ordaindua izatea. Alta, nork bere beharrianak asetzeko nahiko diru sarrerak lortzea ahalbidetzen dion enplegua litzateke lan ordaindua. Lanaldi, lan egun eta gainerako lan baldintzei dagokienez modu duin batean diseinatu. Betiere, kontuan hartuta aldi berean erreproduktzio lanaren banaketa partekatu eta bidezko batekin batera uztartzeko modua eman behar duela.

Marko teorikoan bildu den ildotik, batetik, ekonomiaren birdefinitzea eta sektore ekonomikoen eraldaketa baldintza ezinbestekoa irizten da emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak desagertzea bilatzen duen euskal gizartean. Proposamen praktikoa hauek hobesten dira. Batetik, lan erreformaren eraldaketa, emakumeei eskaintzen zaizkien enpleguak baldintza eta soldatei dagokionean, hobekuntza adierazgarria behar dute. Enpleguen eta zainketeen arteko talka plana diseinatzea da helburu, finean, etxekolanen sexuaren arabeko banaketa justu bat lortzeko bidean.

Bigarrenik, neurri publikoak eta itun pribatuak konbinatuko dituen zaintzen estrategia berrituaren diseinua egikaritzea: i) ezinbestekoa da ekonomia birdefinitzea, mozkina eta aberastasuna oinarri bakar gisa hartu ordez, ordainduak ez diren jarduerak kontuan hartuko dituen; ii) hasteko, etorkizuneko sektore

ekonomikoen artean, adinekoen eta mendekoen zaintza sartu beharko litzateke; iii) mendekotasunaren arretarako eta haur hezkuntzarako inbertsioa handitzea, eskubide horiek unibertsal bihurtzeko trantsizio programa baten barruan; iv) haurrak zaintzeko baimenak parekoak izatea, egun Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Komunitatean egin moduan, eta besterenezinak parekatzea; v) haurren zaintzarako baimenen inguruan, bi gurasoentzat gutxieenez sei hilabeteko baimenak eskaintzea, eta guraso bakarreko familiei laguntzeko pertsona bat izatea. Erditu ondoren aldi baterako ezintasuna aitortzea. Amatasuneko baimena bukatzean hasiko litzateke.

Hirugarrenik, egun Gizarte gastu gisa kontabilizatzen dena inbertsio bihurtzea da hirugarren proposamena. Laugarrenik, sistema publikoa indartzea, oinarriko zerbitzuak emateko duten gaitasuna indartuz. Birbanatzera bideratutako erreforma fiskalak bultzatzea, ordaintzeko gaitasun handiena dutenak gehiago zergapetuz (errenta handiak, korporazio eta dirutza handiak dituztenak), eta era berean, zerga ihesa jo mugan jartzea. Bosgarrenik, prestazio ekonomiko erregresiboak kendu eta kalitatezko zerbitzu publikoak bermatu beharko lirateke. Seigarrenik, Euskal Herriak bere gizarte babeseko sistema propio eta oso bat beharko luke, interakzioaren gurpilaren norabidean, lan merkatua, familia, komunitatea eta Estatuaren interbentzioen oreka bermatuz. Eta azkenik, ongizate sistemaren oinarriak indartuko beharko lirateke, egungo bi erregimenen ezaugarrietatik abiatuz, euskal herritar ororentzat eta emakumeen ahalduntzea bermatzeko eredu propioaren oinarriekin.

5. Bibliografia erreferentziak

- AGENJO, Astrid (2019). *Economía política feminista. Genealogía, enfoque sistémico de la sostenibilidad de la vida y aproximación a la economía mundial* [tesis doctoral, Universidad de Sevilla].
- AGENJO, Astrid & PÉREZ OROZCO, Amaia (2017). «Economía feminista». *Economistas sin fronteras*, 53-97.
- BARAD, Karen (2023). *Frankenstein, la grenouille et l'électron. Les sciences et la performativité queer de la nature* (L. Balice eta C. Degoutin, Trads, J. Rouse, Pref.). Asinamali.
- BRIARD, Kevin (2020). «L'élasticité de l'offre de travail des femmes en France. Petite revue de méthodes et de résultats». *Revue de l'OFCE*, 169(5), 39-72.
- CARRASCO, Cristina (2001). *La sostenibilidad de la vida humana: ¿un asunto de mujeres?, Mientras Tanto*, (82), 43-70.
- CARRASCO, Cristina (2004). «El cuidado: ¿coste o prioridad social?». In A. RINCÓN (coord.), *Congreso Internacional Sare 2003: «Cuidar cuesta: costes y beneficios del cuidado»*, (31-37). Emakunde.
- CARRASCO, Cristina (2009). «Mujeres, sostenibilidad y deuda social». *Revista de educación* (extraordinario), 169-194.
- CARRASCO, Cristina (2014). «Olga Abasolo eta Lucia Vicent-en elkarrizketa», *Papeles de relaciones ecosociales y cambio global*, (127), 141-156.

- CARRASCO, Cristina (2020). «Economía feminista y economías solidarias: Diálogos urgentes». *Políticas públicas, estrategias económico-alternativas y derechos económicos de las mujeres* (205-214).
- CARRASCO, Cristina, BORDERÍAS, Cristina & TORNS, Teresa (2011). *El trabajo de cuidados. Historia, teoría y políticas*. Catarata.
- CALDERARO, Chiara (2022). «La critique féministe-marxiste: du travail domestique aux théories de la reproduction sociale». *Travail, genre et sociétés*, 48, 113-128.
- CICCIA, Rossella & SAINSBURY, Diane (2018). «Gendering Welfare State Analysis: Tensions between Care and Paid Work». *European Journal of Politics and Gender*, 1(1-2), 93-109.
- CUKIER, Alexandre (2016). «De la centralité politique du travail: les apports du féminisme matérialiste». A. BIDET, E. GALERAND, D. KERGOAT (coord.), *Analyse critique et féminismes matérialistes (Cahiers du Genre, hors-série)*, 151-173).
- DURÁN HERAS, María Ángeles (2006). *La cuenta satélite del trabajo no remunerado en la Comunidad de Madrid*. Dirección General de la Mujer.
- FOLBRE, Nancy & HARTMANN, Heidi (1988). «The Rhetoric of Self-Interest: Ideology and Gender in Economic Theory». A. KLAMER, D. N. MCCLOSKEY eta R. M. SLOW (eds.), *The consequences of Economic Rhetoric* (184-203). Cambridge University Press.
- FRASER, Nancy (2015). *Fortunas del feminismo*. Traficantes de Sueños.
- GAGO, Verónica (2019). *La potencia feminista o el deseo de cambiarlo todo*. Tinta limón.
- GÁLVEZ, Lina & RODRÍGUEZ, Paula (2011). «La desigualdad de género en las crisis económicas». *Investigaciones Feministas*, 2, 113-132.
- HERRERO, Yayo (2013). «Miradas ecofeministas para transitar a un mundo justo y sostenible». *Revista de Economía Crítica*, (16).
- JUBETO, Yolanda & LARRAÑAGA, Mertxe (2014). «La economía será solidaria si es feminista». REAS (ed.), *Sostenibilidad de la vida. Aportaciones desde la economía solidaria, feminista y ecológica* (13-25).
- KRINSKY, John & SIMONET, Maud (2012). «Déni de travail l'invisibilisation du travail aujourd'hui. Introduction». *Sociétés contemporaines*, (87), 5-23.
- MARTÍN PALOMO, María Teresa (2008). «Domesticar el trabajo: una reflexión a partir de los cuidados». *Cuadernos de Relaciones Laborales*, 26(2) 13-44.
- MOLINIER, Pascale (2020). *Le travail du care*. Éditions La Dispute.
- MUYOR-RODRÍGUEZ, Jesús (2019). «Prospectiva. El cuidado del familiar dependiente: análisis de género en la política social española». *Revista de Trabajo Social e intervención social*, 27, 83-105.
- ORLOFF, Ann Shola & LAPERRIÈRE, Marie (2020). «Políticas del bienestar y género». *Ciudadanías, revista de políticas sociales urbanas*, UNTREF.
- PAILHÉ, Ariane, SOLAZ, Anne, WILNER, Laurent, & EpiCov (2022). «Housework and Parenting during the Lockdowns in France: How Have Socio-Economic and Gender Inequalities Changed?». *Economie et Statistique / Economics and Statistics*. <https://www.insee.fr/fr/statistiques/6477736>
- PALMER, Bryan. D. (2015). «La lutte de classes et les dépossédés». *Actuel Marx*, 58, 28-45.
- PÉREZ OROZCO, Amaia (2019). *Subversión feminista de la economía. Aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*. Traficantes de sueños.
- PERIVIER, Hélène (2020). *L'économie féministe*. Presses de Sciences Po.
- PERIVIER, Hélène & SÉNAC, Réjane (2018). «The new spirit of neoliberalism: equality and economic prosperity». *International Social Science Journal*, 67, 223-224.

- PICCHIO, Antonella (2001). «Un enfoque macroeconómico “ampliado” de las condiciones de vida». Cristina CARRASCO (ed.), *Tiempos, trabajos y género*, (15-37), Universitat de Barcelona.
- SASSEN, Saskia (2003). *Contra geografías de la globalización. Género y ciudadanía en los circuitos transfronterizos*. Traficantes de Sueños.
- SZALMA, Ivett, OCHSNER, Martina & TAKÁCS, Judith (2020). «Linking Labour Division within Families, Work–Life Conflict and Family Policy». *Social Inclusion*, 8(4), 1-7.
- SIMONET, Maud (2010). *Le travail bénévole: Engagement citoyen ou travail gratuit?* La Dispute.